



Esleipenak



2012tik hona eskaini diren lanpostuak ez dira bakanteak izan, honen ondorioz LZtik at 10 LEP-arteo daude. LAL bat egiteko LEP-arteo bakoitzak bere bankantea identifikatuta izan behar du, horretarako aurten esleipenek bi fase izango dituzte.

- 1.- Atxikipen berri bat lortu behar duten hezitzaileentzat (borondatezko eszedentziatik bueltatzen diren langile finkoak eta LZtik at dauden 10 LEP-arteoak)(Uztailak 14)
- 2.- Haurreskola batzuetan matrikulazio gutxi dagoelako mugituak izango diren hezitzaileentzat (Uztailak 23)

Bi faseak desberdinak izan arren, 14an gertatzen denak 23an eragina izango du.

Enpresak sindikatuoi proposamenak luzatzea eskatu zigun 14ko esleipenean zein lanpostu atera beharko ziren adosteko. **steilas** izan da proposamena egin duen sindikatu bakarra, hurrengo bi irizpide kontuan izanik:

- 1.- 2015-16 ikasturtera begira finkoek LEP-arteoek baino lehenago lanpostu bat hartu beharko lukete.
- 2.- LEP-arteo guztiek zerrendaren hurrenkera jarraituz lanpostu bat hartu beharko lukete.

Enpresak 14ko esleipenean gehiengo sindikalaren oniritziarekin LZan libre dauden lanpostu guztiak ateratzea erabaki du, gure proposamenari muzin eginez.

ADI! Esleipenetako edozein fasetan 13.artikulua dioten bezala, zure haurreskolan hezitzaile amortizatuak edo mugituak egonez gero, borondatez aurkeztu ahalko duzu zure burua prozesuan parte hartzeko.

Langile guztion onurarako,
bidezkoa den araudia lortzeko,
steilas beti lanean.

Data: 2015/07/02